Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
Centro superior de música del País Vasco
musikene

**ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA**
**KONPOSIZIOA**

Eguna: 2010eko otsailaren 24a (asteazkena)
Ordutegia: 11:00 - 14:30
Egitaraua:

**11:00- 12:00 Bisitariei harrera**

a) Espezialitateari buruzko informazioa jasotzeko sail zuzendariaren eskutik hitzaldi laburra, eta dossier banaketa garrantzizko informazio guztiarekin:

- Musikeneren eta espezialitatearen helburuak
- Kurrikuloa: irakasgaiak eta nola banatzen diren 5 ikasturteetan.
- Irakaslegoa: espezialitateko irakasle nagusien biografia laburra
- Eskola eta eskoletatik kanpoko jarduerak
- Ekipamendua: Mediateka, elektroakustika eta ikusentzutekoen laborategia, Ahaire aldizkaria, algitalpen zerbitzua, e.a.
- Sarrera-probak
- Karrera amaierako azterketak
- Erasmus
- Ikasketak amaitu ondoren ikasleei egiten zaien jarraipena

b) Espezialitateko irakasleen parte-hartzea, honakoak azalduz:
- Lan-metodologia
- Ebaluaketarako irizpideak
- Ikasketei buruzko orientabidea: balizko ibilbideak, lan-aukerak
- Tailer instrumentalak
- Egiten diren beste jarduerak
- Etorkizuneko egitasmo edo jarduerak, lankidetzak, e.a.

**12.00- 12:30 Ikastegiari bisita labur gidatua**

- Mediateka
- Elektroakustika eta ikusentzutekoen laborategia (bertan egiten den lanari buruzko azalpenak espezialitateko irakasle baten eskutik. Ahal bada eta erakusle modura, elektroakustika eta/edo ikusentzutekoan eginiko proiekturen bat erakutsiko zaie).

**12:30 – 13.00 Tailer instrumentalari bisita**

Bisitariek Lazkano irakaslearen tailer instrumentalean parte-hartuko dute entzule moduan. Bertan, konposizioko ikasleek beraien sorkuntzak talde instrumental batekin entseatuko dituzte.

**13.00- 14:30 Banakako elkarrizketak espezialitateko irakasleekin**

Erkoreka, Lazkano eta Gerenabarrena irakasleek banaka hartuko dituzte ala nahi duten bisitari guztiak. Elkarrizketa hauen helburuak dira:

- Aholkularitza: etorkizuneko hautagaiak lanen bat aurkeztu dezakete irakasleak komentatu edo gainetik baloratzeko.
- Norberaren zalantza edo galderak erantzutea
- Kontaktu pertsonala egitea eta ondoren, interesa duenari, bakarkako lan saio baterako aukera eskeintzea (bi aldeen artean adostutako egunean)

**14:00- Agurra eta Ateak Zabaltzeko jardunaldiaren amaiera**

Edozein zalantza argitzeko, edo beste egun batzuetan bisita egin ahal izateko, egin kontaktua Sail Zuzendariarekin:

Gabriel Erkoreka: gerkoreka@musikene.net